

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

2419

14/2020 DEKRETUA, ekainaren 18koa, Lehendakariarena, zeinaren bidez deklaritzen baita deseskaladarako planaren 3. fasea gainditu dela. Horrenbestez, indargabetuta geratuko dira alarma-egoeraren esparruan hartutako neurriak, eta 2020ko ekainaren 19ko 00:00etan hasiko da «normaltasun berria».

2020ko martxoaren 13an, Osasuneko sailburuak eskatuta, Segurtasuneko sailburuak erabaki zuen Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi – Euskadiko Babes Zibilaren Plana formalki aktibatzea, COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertaren egoera zela eta. Euskadiko Babes Zibilaren Plana ekainaren 24ko 153/1997 Dekretuaren bidez onartu zen eta Euskal Autonomia Erkidegoko antolamendu-esparru orokorra ezartzen duen tresna da, larrialdi-mota guztiei aurre egiteko, baldin eta izaeragatik edo hedapenagatik edo administrazio bat baino gehiago koordinatu behar izateagatik autonomia-mailako zuzendaritza behar bada.

Egun berean, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretuaren bidez, lehendakariak Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi – Euskadiko Babes Zibilaren Plana zuzentzeko eskumenak bereganatu zituen, COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertaren egoera zela eta; kontuan hartuta martxoaren 11n Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiaren mailara igo zuela COVID-19aren hedapenak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratu zen COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko. Salbuespen-egoera hori sei aldiz luzatu da. Ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretuaren bidez artikulatu zen azken luzapena, alarma egoera 2020ko ekainaren 21eko 00:00ak arte luzatuta.

Pandemiaren bilakaerari loturiko adierazleek eta sistema sanitarioaren egoerak ahalbidetu zutenean, Osasuneko sailburuordearen 2020ko maiatzaren 14ko Ebazpenaren bidez, amaitutzat jo zuten koronabirusaren hedapena indarrez geldiarazteko ezohiko eta premiazko neurriak hartu beharra, eta gainditzat jo zuten osasun-larrialdiko egoera; ondorioz, osasun-zaintzako beste fase bat hasi zen. Horrekin bat etorritik, 2020ko maiatzaren 14ko Aginduaren bidez, Osasuneko sailburuak lehendakariari eskatu zion Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi – Euskadiko Babes Zibilaren Plana modulatzeko, osasun-zaintzako beste fase batera egokitzeko.

Horren ostean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-bilakaera ikusita, lehendakariaren maiatzaren 17ko 10/2020 Dekretuaren bidez, indarrrik gabe utzi zen Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi – Euskadiko Babes Zibilaren Plana zuzentzeko eskumenak lehendakariak bereganatzea.

Ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretuaren 5. artikulua ezarritakoaren arabera, indarrrik gabe geratuko dira probintzia, uharte edo lurralde-unitateetan alarma-egoera deklaratzearen ondorioz ezarritako neurriak, baldin eta Ministro Kontseiluak 2020ko apirilaren 28ko bileran deseskaladarako onartu zuen planean aurreikusitako fase guztiak gainditzen badira.

Bestalde, 6.2 artikulua arabera, autonomia-erkidegoek erabaki behar dute 3. fasea gainditzeko, 5. artikulua ondorioetarako eta irizpide sanitario eta epidemiologikoen arabera, bakoitzak bere erkidegoko probintzia, uharte edo lurralde-unitateetan, eta, ondorioz, «normaltasun berrian» sartzea.

2020ko ekainaren 19a, ostirala

Azken aurreikuspen horren esparruan, Osasuneko sailburuordeak 2020ko ekainaren 17an egindako txostenean adierazi du osasun- eta epidemiologia-egoerak ahalbidetzen duela Euskal Autonomia Erkidegoan deseskalada-planaren 3. fasea gaindituzat ematea. Baina horrek ez du esan nahi posible dela dispositibo sanitario osoa desaktibatzea, ezta ez dutela indarrean iraun behar zaintza- eta kontrol-egoerari dagozkion prebentzio- eta geldiarazte-neurriek ere; izan ere, kasuen eta harremanen jarraipen sistematikoa eta kudeaketa eraginkorra izango dira zaintza- eta kontrol-egoera horren ardatza. Helburu hori daukate, besteak beste, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrien ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuak adierazitako aurreikuspenek. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Gernikako Estatutuaren 18. artikuluan aitortutako eskumenak baliatuta, Osasuneko sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduan garatu eta osatuko dira aurreikuspen horiek. Agindu horren bidez, «normaltasun berriari» eraginkortasunez ekiteko nahikoa eta egokia den arau-multzoko bat emango da argitara, hartara eragotzi gabe gerora ere modulazioak eta eguneraketak egiteko aukera, betiere osasun-datuen bilakaera kontuan hartuta.

Ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretuaren 6. artikulua adierazitako lankidetzaren esparruan, Osasuneko ministroari jakinarazi zaio hori guztiori, eta, ekainaren 18ko ezohiko bilkuran, Gobernu Kontseiluak aztertu eta eztabaidatu du gaia.

Hori dela eta, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.m) artikulua eman dako ahalmenaz baliatuta, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoan 3. fasea gainditzea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, deklaritzen da deseskaladarako planaren 3. fasea gainditu dela eta ondorioak izango dituela 2020ko ekainaren 19ko 00:00etatik aurrera.

2. artikulua.– Alarma-egoeraren deklaraziotik eratorritako neurriak indargabetzea.

2020ko ekainaren 19ko 00:00etatik aurrera, deseskaladarako planean aurreikusitako fase guztiak gaindituta, indarrak gabe geratuko dira Estatuko Gobernuak eta haren agintaritza eskudunek Euskal Autonomia Erkidegoan adierazitako alarma-egoeraren deklaraziotik eratorritako neurriak.

3. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-krisiari aurre egiteko eskumena duten agintariak.

3. fasea gaindituta, Euskal Autonomia Erkidegoko agintari eskudunek hartu behar dituzte pandemiari aurre egiten eta pandemia kontrolatzen jarraitzea ahalbidetuko duten prebentzio-neurriak, Gernikako Estatutuan aitortutako eskumenen esparruan. Horretarako, COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrien ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren esparruan, Osasuneko sailburuak 2020ko ekainaren 18ko Agindua onetsiko du Euskal Autonomia Erkidegoko «normaltasun berriari» aplikatu behar diren prebentzio-, zaintza- eta kontrol-neurriak ezartzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratuko dira dekretu honetan ezarritakoaren aurkakoak diren maila bereko eta beheagoko xedapen guztiak.

2020ko ekainaren 19a, ostirala

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau 2020ko ekainaren 19ko 00:00etan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 18an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.